

BALOREZKO PROPOSAMENA

Guk sortuko dugun aplikazioak “Elkartu” izena izango du, izan ere, aplikazio honi esker, pisua bilatzen ari direnak eta pisua alokatzen dutenak modu errazago batean elkartzen saiatuko garelako. Aplikazio honen helburu nagusia, bezeroei erosotasuna ematea da, honek bakoitzaren interesen arabera gomendatuko dizkielako pisuak eta horregatik, errazagoa egingo zaielako bilatzen ari direna aurkitzea. Gainera, pisukidea bilatzen ari direnak, beraien bizimodu eta pentsamendu antzekoak dituen norbait bilatzeko aukera izango dutelako, hau da, beraien bateragarria den norbait bilatzea eta baita beraien harremanetan jartzeko aukera ere.

Behin aplikazioan sartzerakoan, izena eman beharko du bezero bakoitzak eta jarraian, hamabost galderari erantzun. Lehendabiziko galdera ea pisua, pisukidea edo biak bilatzen dituzten izango da. Ondoren, pisua non bilatzen ari diren, nahi duten pisuaren gorabeherako prezioa, zer zonaldeetan, zenbat logelekin... erantzun beharko dute. Bestalde, pisukidea bilatzen dutenek, beraien interesak zeintzuk diren, zaletasunak, pisukidea nolakoa izatea nahiko luketen, antolatua diren ala ez...

Beraien erantzunen arabera, pisukide posible batzuk azalduko zaizkie eta aplikazioak duen txataren bidez hitz egin dezakete, baita interesatuta badaude beraien beharretara gehien egokitzen den pisua aukeratzeko ere has daitezke. Interesatuta ez badaude, pisukidean “berriro” botoiari sakatu beharko diote, beste pisukide bat bilatu ahal izateko, eta horrela, beraien interesekoa den norbait aurkitu arte.



Gure aplikazioa ez da besteak bezalakoa, izan ere, besteeengatik bereizten duena, bezeroei egiten zaien galdeketa da, beraien nahietara gehien gerturatzen diren pisuak eta pisukideak aurkitu ahal izateko. Gainera, aplikaziotik pisukideekin kontaktuan jarri ahal izateko aukera ematen die eta baita pisuak alokatzen dituzten ikasleak aurkitzea ere. Ondorioz, gure balioa kualitatiboa izango da.